

BIZKAITARREN SAREA



BIZKAIARI ETA PARTAIDETZARI BURUZKO INFORMAZIO GUZTIA ETA AZKEN BERRIAK

PARTEHARTZEA BIZKAIA

Aldundiak 250.000 euroekin finantzatuko ditu udalek eta mankomunitateek sustatutako herritarren partaidetzarako prozesuak.



Bizkaiko Foru Aldundiak 250.000 euroko laguntza-lerro bat onartu du, udalek eta mankomunitateek urte honetan sustatutako herritarren eta gizartearen partaidetzarako prozesuak sostengatzeko. Laguntza horiek Foru Erakundearen Herritarren eta Gizartearen Partaidetzarako 2020-2030 Foru Planaren helburuetako bati erantzuten diote: erakunde horiek herritarren partaidetzarako bultzatzen dituzten jarduerari ematen zaien laguntza indartzea, parte-hartzea lurraldeko eskualde eta udalerriei balio handiena emango dien tresna izan dadin.

[INFORMAZIO GEHIAGO](#)

BIZKAIA ERAIKITZEN

Egin zaitez Bizkaia egiten newsletter-en harpideduna

Egon zaitez Bizkaiko berrikuntza eta proiektu guztien egunean. Hileroko buletin honetan kultur jarduerari, azpiegitura berriei, diru-laguntzei, laguntzei eta askoz gehiagori buruzko informazioa aurkituko duzu.

[INFORMAZIO GEHIAGO](#)

BIZKAIA KONTUAK EMATEN

2020-2023 Herritarren eta Gizartearen Partaidetza Planaren tarteko ebaluazio-txostena aurkeztea.

2020-2023
Herritarren eta
Gizartearen Partaidetza
Plana

TARTEKO
EBALUAZIO
TXOSTENA
2021/12/31



Txostenaren helburua da 2020-2023 aldirako Partaidetza Planean aurreikusitako ekintzen implementazioan 2021/12/31n izandako tarteko aurrerapen-maila jasotzea. Helburua da tarteko kontrol-puntu bat gauzatzea, beharrezko hobekuntzak eta aldaketak identifikatzea eta espero den inpaktua lortzeko beharrezko mekanismoak abian jartzea.

Txosten hori egiteko, hainbat bilera egin dira jarduketan ardura duten taldeekin, bai eta beste lantalde tekniko laguntzaile batzuekin ere. Bilera horietan, informazio kuantitatiboa bildu da eta egindako aurrerapenak bateratu dira.

[INFORMAZIO GEHIAGO](#)

NAZIOARTEKO PARTEHARTZE ESPERIENTZIAK

Demokrazia deliberatiboa instituzionalizatzeko zortzi modu

Eight Ways to Institutionalise Deliberative Democracy

OECD Public Governance Policy Paper

ELGAK gida bat argitaratu du demokrazia deliberatiboko prozesuak instituzionalizatzeko. Funtzionario publikoentzako eta politikak formulatzen dituztenentzako gida honek zortzi eredu deskribatzen ditu deliberazio publiko ordezkatzailea instituzionalizatzeko, erabakiak kolektiboki hartzea hobetzeko eta demokrazia indartzeko. Gidaliburuak zenbait motatako erabaki publikoak hartzeko moduaren zati integral bihurtzeko aukera emango duten egiturak sortzeko moduaren adibideak ematen ditu.

[INFORMAZIO GEHIAGO](#)



SARTU BIZKAITARREN SAREAN

Copyright © 2022 DFB, All rights reserved.
BIZKAITARREN SAREA
Buletin honetatik baja eman nahi baduzu,
idatz izagazu hona: partaidetza@bizkaia.eus

Datuen babesari buruzko oinarriko informazioa:
Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko 2016/679 Erregelamenduaren (EB) 13. eta 14. artikulua eta Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 11. artikulua betez, honako hau jakinarazten dizugu:
1. TRATAMENDUAREN ARDURADUNA ETA KONTAKTUA: Gobernamendu Onerako eta Gardentasunerako zuzendaritza Nagusia (Kale Nagusia 25-48009 Bilbo)
2. HELBURUA: Bizkaitarren Sarea: partaidetza prozesuak.
3. ESKUBIDEAK EGIKARITZEA: eskubidea duzu tratamenduaren erantzulearen aurretik zure datuak eskuratzeko, zuzentzeko, aurka egiteko, ezabatzeko, tratamendua mugatzeko eskubideak erabiltzeko, eta ez izateko banakako erabaki automatizatuen xede, idatzi bat zuzenduz helbide honetara: lege aholkularitzaren, informazioaren Segurtasunaren eta Datuen Babesaren Atala (Kale Nagusia 25-48009 Bilbo). Non:
BFaren egoitza elektronikoa: <https://www.ebizkaia.eus>
Bizkaiko Foru Aldundiko Erregistro Nagusia (Erregistro eta Herritarren Arretarako Bulegoa): Diputazio kalea, 7, 48008 Bilbo.
Bizkaiko Foru Aldundiko sailietako erregistro orokorrak
39/2015 Legean aurreikusitako lekua.
Datu pertsonalen babesari buruzko informazio gehigarria lortzeko, sartu esteka hauetan:

© 2022 BFA/DFB

Harpidetza ezeztatu